

## **EUSKARA BATZORDEAK 2010eko APIRILAREN 15ean IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

*Idoia Fernández and. (Euskara Zinegotzia)*  
*Josu Erkiaga jna. (Udal Euskaltegia)*  
*Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)*  
*Pili Ibarra and. (Berbalagun.)*  
*Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)*  
*Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)*  
*M<sup>a</sup> Luisa Urrestarazu and. (Seber Altube ikastola)*  
*Bego Zabaleta and. (San Fidel Ikastola)*  
*Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)*  
*Anabel Gerrikagoitia and. (Mertzede ikastetxea)*  
*Rosa Okariz and.*  
*Aitor Ansotegi jna. (Kirol Erakundeko Zuzendaria)*  
*Maialen Basterra and. (Ezker Abertzalea)*

### **Idazkaria:**

*Bittor Zarrabeitia jna (Hizk. Norm. Tek. I)*

Hasiera ordua: 19:00

Amaiera ordua: 21:00

### **1).- Aurreko bilerako akta (2009ko abenduaren 2koa).**

Aurreko bilerako aktari buruzko oharrik ez da egin eta aho batez onartu da.

### **2).- Euskara erabileraren azterketa.-**

Kontseiluaren laguntzaz, Euskara Batzordeko kide batzuek (Udala, AEK, Seber Altube Ikastola eta EHE), Gernika-Lumon euskarak duen erabileraren inguruan neurketa bat egin dute. Haren ondorioak Estiñe Astorkiak azaldu ditu. Dioenez, Kontseiluak, Udalarekin duen hitzarmena bitarteko, aurtengo lehenengo ekintza burutu da: udalerrri mailako hizkuntza politika eta erabileraren neurketa. Neurketa horren ondorioz, 2006ko neurketarekin alderatuta, hurrengo puntu kezkarri hauek identifikatu dituzte:



- Osoko Bilkuretan euskararen erabilerari gutxitu egin da.
- Gaztedi arloko kalerako komunikazioan, hizkuntza irizpideak aldatu egin dira azken hilabeteetan eta publizitatea eleberaz ateratzen da.
- Udal aldizkarian euskarak duen presentzia urria eta desegokia.
- Kiroldegiko ikastaroetan euskarazko eskaintza jaitsi egin da.

Gaineratu egin du Kontseiluarekin batzartu ostean gutun bat prestatzea erabaki dela eta Euskara Batzordean planteatzea, beronen izenean Alkateari bideratzearen eta aldaketa edo jokabide ezegoki horien arrazoiak galdetuz.

Euskara Zinegotziaren ustez, gutuna Alkateari ez ezik talde politiko guztietako bozeramaileei bidali beharko litzaieke, eragina izan dezan guztiengan, Osoko Bilkuretan euskararen erabilera guztiei doakie eta.

Aitor Ansotegik azalpenak eman ditu kirol ikastaroetako begiraleen arazoak direla eta. Arazoa, dioenez, begirale euskaldunak ez aurkitzean datza; nahi den modalitatean eta ordutegian lortzea area zailago. Diru arazoa ez da. Ikastaroa bertan behera utzi edo gatzeleraz ematearen artean aukeratu behar da. Dena den, ikastaroan zehar, euskarazko begiralea topatuz gero, aldatzeko konpromisoa dute.

Estiñe Astorkiak uste du konponbideetako bat prestakuntza eskaintzea dela eta begiraleen zerbitzua eskaintzen duten elkarteekin hitzarmena sinatzerakoan baldintzetako bat prestakuntza jasotzearena izan daiteke, beharrezko litzatekeen kasuetan.

Euskara Zinegotziak proposatu du adostuko den gutuna Alkateari eta talde politikoetako bozeramaileei bidaltzea eta planteatutako zirriborroa egokitzea batzarrean esandako guztien arabera.

### **Erabakia:**

**1).- Kontseiluarekin elkarlanean Euskara Batzordeko Talde Eragileak euskararen kale erabileraren neurketaren ondorio kezkarrirei buruz gutun bat adostea (I. eranskina)**

**2).- Aipatu gutuna Alkateari eta talde politikoetako bozeramaileei bidaltzea.**

**3).- Euskara Saileko webgunea.**

Iametzta enpresari esleitutako lanaren emaitzak aurkeztu ditu Euskara Zinegotziak, ezkutuko webgunea pantailan azalduz. Bertan sartzeko gonbitea egin die batzarkideei eta egin ditzaketen hausnarketan berri emateko ere.

Landutako atalen azalpenak eman ditu eta falta direnen berri ere, “Bidaideak” deitutako txokoan sartu beharreko edukiarena azpimarratuz; bertan agertuko dira euskalgintzako eragileak, Euskara Batzordean parte hartzen duten erakundeak eta Udalarekin nolabaiteko elkarlana burutzen duten guztiak. Bakoitzak aurkezpen modura izango lukeen testua eta gainerakoa (irudiak, beste webgune edo blog batzuetara loturak,...) prestatzeko eskaera egin die. Posta elektronikoz egingo zaie gonbite zehatza, zer eta zenbatekoa jartzeko baldintzak zehaztuz.

#### **4).- Informazioa.-**

##### **Gidabaimena euskaraz**

Euskara ikasteko edo euskaraz trebatzeko ikastaroak direla-eta indarrean dagoen araudian atal berri bat txertatzeko proposamena aurkeztu du Euskara Zinegotziak: gidabaimena euskaraz ateratzeagatik diru laguntzak.

Gogoratu egin du aurreko batzar batean **Gidabaimena euskaraz** ateratzeko kanpainaren berri eman zela eta orduan kanpaina hori atzeratzea erabaki zela, aurrekontu murrizketa oinarri beste lehenetasun batzuei aurre egin beharko zaielako. Gainera, beste udalerrri batzuetan izandako emaitzen berri izan ondoren, kanpaina horri buruzko hausnarketa ere egin da Euskara Zerbitzuan: zalantzan jartzen da autoeskolei emandako diru laguntzen eragina, iruzurra ere izan delako kasu batzuetan. Honela ziurtatzen zaie materiala autoeskolei, baina ez benetan prestakuntza eta azterketa euskaraz egiterik.

Beraz, egin duen proposamena diru laguntza zuzenean partikularrei ematea da, gidabaimenaren azterketa euskaraz ateratzeagatik.

**Gaia eztabaidatu ondoren, batzarkideek haxe erabaki dute:**

**1).- Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik diru laguntzak eskaintzea eta indarrean dagoen araudiari gehigarri hori eranstea.**

**2).- Aurten, lehenengo aldia izanik, diru kopuru bat helburu honetara bideratuko da. Eskatzaile bakoitzarentzat gehienezko kopuru bat ezarriko da eta aurkezten direnen artean hainbanaketa egingo. Merkatu azterketa egin ondoren, zehaztuko dira aipatu bi kopuruak.**

## Euskara aurrekontuak

Udal aurrekontuan **Euskara aurrekontuak** izan duen kokapenari buruzko informazioa ere eskaini du Euskara Zinegotziak. Euskara arloko aurrekontua aztertu zen azken batzarrean egindako kenketekin onartuko dela aurreratu du.

## Kaleetako plakak

Euskara Zinegotziak azaldu egin du aurkeztutako proposamena (II. eranskina) eta horretarako arrazoiak argitu ditu. Bi proposamen horiek onartu egin dira eta jarri beharreko testuak honela geratu dira:

- “Ocho de enero kalea”.- Bertan kokatu beharreko plakan, Kultura sailari hauxe jartzeko proposamena luzatzea erabaki da: *“Madrileko Dekretuz, 1882ko urtarrilaren 8an Gernika Uri-burua eta Lumoko eleizatea batu ziran”*.
- “Katekonekoa”.- Kasu honetan, honako testua: *“Hementxe egoan etxeari lotutako izena, Albiztarren etxea zana, beti izan zan ezagun “katearen etxea edo katekonekoa” zalako; bertan ordaindu behar izaten zan zerga Gernikan produktuak saltzeko”*.

## Euskaltzaindiaren azken txostena

Akta honen II. eranskinean agertzen da Euskaltzaindiak kale izendegiari buruz egindako azken hausnarketa eta proposamena. Hausnarketa egin ostean, koadroan agertzen diren izenei buruzko honako proposamena egitea adostu dute batzarkideek:

Egungo izeana	Euskaltzaindiaren proposamena	Euskara Batzordearen proposamena
Alhondiga kalea	Alondegia kalea	Alondegia kalea
Barrenkale Barrena	Barrenkalebarrena (-a)	Barrenkalebarrena (-a)
Betanzos gotzaia plaza	Betanzos Gotzainaren plaza	Betanzos Gotzainaren plaza
Don Tello kalea	Jaun Tellu kalea	Don Tello kalea
Erreka egala	Errekaegala	Errekaegala
Eugenia Idoiaga “emagina” kalea	Eugenia Idoiaga Emaginaren kalea	Eugenia Idoiaga Emaginaren kalea
Fray Martin de Murua kalea	Frai Martin Murua kalea	Frai Martin Murua kalea
Loizaga kalea	Loitzaga kalea	Loitzaga kalea
Ocho de Enero kalea	Urtarrilaren Zortzia kalea	Ocho de Enero kalea
Pedro Elejalde kalea	Pedro Elexalde kalea	Pedro Elejalde kalea

Egindako aipamen bereziak:

- Don Tello kalea.- “Jaun Tellu” jartzea ez da aintzat hartzen, izenak daukan jatorria erromantzezkoa delako eta pertsonaia bera ere ez delako euskal jatorrikoa.
- Pedro Elejalde kalea.- “Pedro Elexalde” jartzea ez da ontzat eman, pertsonaia baten izena izanik, berak erabilitako idazkera errespetatzearren.
- Ocho de enero kalea.- Eztabaidatu egin da eta dagoenean uztea erabaki da, euskarazko testuinguruan txertatuta dagoelako “ochodenero kalea” eta ez delako oztopo euskararen erabilerarako; gainera, kaleko jendearentzat “urtarrilaren zortzia kalea” jartzea arrotz egingo litzaiokeelakoan daude batzarkideak.

## 5.- Norberak lekarkeena.

Rosa Okariz andreak, aztergaietako lehenengo puntuarekin lotutako gutuna dela eta Kultur Etxean antolatu den ikastaro baten berak izandako esperientzia azaldu du; partaideen gehiengo nabarmena euskalduna izanik euskaraz garatuko zelakoan, erdarara jotzeko proposamena egin ei zuen arduradunak eta berak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatu. Berak daukan pertzepzioa da ekintza asko euskaraz gara daitezkeenak motibo barik erdaraz garatzen direla eta horrelako kasuetan partaideen hizkuntza eskubideen konfrontazioa ekiditeko hizkuntza irizpideak aplikatu beharko liratekeela automatikoki, inork bere burua irainduta sentitu ez dezan. Aipatu ikastaroa udal sailaren batek antolatua zela esan du, beste argitasunik barik. Zein irizpide jarraitzen den edo protokolorik dagoen jakin beharko litzatekeela pentsatzen du.

Estiñe Astorkiak adierazi du neurketa egiterakoan Kultur Etxea ere aztertu dela, barruko eta kanpoko funtzionamenduari dagokionean, baina Kultur Etxean garatu arren berak erakundeak antolatu gabeko jarduerena kanpoan geratu dela neurri handi batean. Bere iritziz, hiru mailetan banatu beharko lirateke ekimenak: Kultur Etxeak berak antolatutakoak, Udaleko beste sailen batek Kultur Etxean antolatutakoak eta beste edozein erakundek antolatutakoak.

### **Erabakia:**

**1).- Kultur Etxeko presidenteari azaldutako kezka helaraztea eta ditugun zalantzei buruz galdetzea.**

**2).- Kanpoko elkarte/erakunde batek Kultur Etxean burutu gurako lukeen jarduera publiko puntual baterako eskaintza egiterakoan, gazteleraz bada, hala aipatzea. Ikastaro bat litzatekeenean, partaideen arabera hizkuntza aukeraketa egin beharko da eta behar diren baliabideak jarri guztien hizkuntza eskubideak errespetatzeko.**

**3).- Antolatzaileak Udal sailak liratekeen neurrian, beti edukiko dira kontuan partaideen hizkuntza irizpideak eta jarduerari ekin aurretik galdetuko**

**zaie egiten duten hizkuntza aukeraketari buruz. Horren arabera jokatu beharko dute antolatzaileek (bi ikastaro eskaini ala ikastaro berean baliabideak jarri guztien hizkuntza eskubideak errespetatzearen).**

Eta beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat jo da bilkura.

EUSKARA ZINEGOTZIA

HIZK. NORMALIZAZIORAKO TEKN. 1

Idoia Fernández Antia

Bittor Zarrabeitia Bengoa

